

Euskararen normalizaziorako plangintza



Aranguren Ibarra -2015-

Egilea: Naiara Ibero Egaña

Tutorea: Mikel Arregi Perez (Euskarabidea)

AURKIBIDEA

1. Laburpena.....	3
2. Sarrera.....	4
3. Aranguren Ibarren ezaugarri orokorrak.....	5
4. Euskararen egoeraren diagnostikoa	8
4.1-Ibarreko biztanleen euskararen egoera.....	8
4.2-Euskara Ibarreko esparru ezberdinetan.....	13
5. Plangintzaren helburuak.....	20
6. Sortu daitezkeen erresistentzien aurreikuspena.....	22
7. Lehentasunak erabakitzeko irizpideak.....	23
7.1-Adina.....	23
7.2-Hizkuntza tipologia.....	24
7.3-Jarduera esparruak.....	26
8. Euskualdeko baliabideak eta eragileak.....	29
8.1- Udaleko baliabideak.....	31

*Euskararen normalizaziorako plangintza
Aranguren Ibarra (2015)*

9. Jarduera zehatzak.....	32
10. Ebaluaziorako tresnak.....	40
11. Bibliografia.....	41

1. LABURPENA

Lan honetan Nafarroako Aranguren Ibarrean euskara normalizatzeko plangintza aurkezten da. Ibar horretan, XX. mendearen hasieran galdu zen bertako euskara eta beste udalerrri askotan bezala, herritarren gehiengoak euskara irakaskuntzaren bidez ikasi du. Euskara berreskuratze prozesuan dagoen ibarra izanik, beraz, euskararen normalizazioa garatzeko ezinbestekoa da udaletik bertatik plangintza baten bidez prozesua gauzatzea udalerrriak euskara biziberritzeko orduan sekulako garrantzia baitu. Iñaki Arrutik idatzitako artikulua batean jasotzen zuen bezala, udalerrria da hizkuntza normalkuntza "(...)garatzeko oinarrizko elementua sektore edo iharduera-esparru guztiak biltzen bait dira herrian: lagunartea, familia, eskola, lan-mundua, administrazioa, gizarte-zerbitzuak, aisialdia..."¹

Argi dago, udalerrria administrazio orokorraren eta herritarren arteko zubia dela. Horrek sekulako garrantzia eta baliabideak ematen dizkio euskara normalizatzeko. Lan honek, hortaz, garrantzi horretaz jabeturik, Aranguren Ibarreko euskara zerbitzutik garatuko litzatekeen euskara normalizatzeko plangintza bat proposatzen du.

¹ (Arruti, Iñaki (1991).Udalerrria eta hizkuntz politika katalunian. BAT, 3-4, 164:)

2. SARRERA

Aranguren Ibarreko bizilagun naizen aldetik, lan honen helburu nagusia ibarreko euskararen normalizazio prozesuan nire ekarpena egitea da. Bestalde, ibarreko euskara zerbitzuan lanean dabilen euskara teknikariarentzako material lagungarria izan nahi du plangintza honek eta, hortaz, helburua da teknikariari aurkeztea berak ontzat eman dezan. Hori oinarritzat harturik, lan honetan ibarreko ezaugarri soziolinguistikoak kontuan izan dira eta antzeman diren behar berriei erantzuteko jarduerak proposatu dira.

Lanaren abiapuntua ibarreko argazki orokorra da, ibarreko ezaugarri orokorrak biltzen dituena. Ondoren, Aranguren Ibarreko euskararen diagnostikoari heldu zaio eta diagnostiko horretan oinarriturik hurrengo hiru atalak osatu dira: plangintzaren helburuak, sortu daitezkeen erresistentzien aurreikuspena eta lehentasunak erabakitzeke irizpideak.

Behin horiek finkatuta eta ibarreko baliabideak aztertu ondoren, plangintza honek proposatzen dituen jarduerak zehaztu dira jardueresparruka sailkatuta. Azkenik, plangintzaren amaieran plangintza bera ebaluatzeke tresna edo irizpideak finkatu dira.

3. ARANGUREN IBARRAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Aranguren Ibarra Iruñerrian kokatua dago eta zortzi herriz osatutako udal konposatua da. Ondorengoak dira ibarra osatzen duten herriak:

Kontzeju eta herriak	Biztanle kopurua	Portzentajea
Mutiloa ²	8407	% 93,60
Taxoare*	314	% 3,50
Labiano*	133	% 1,48
Aranguren*	82	% 0,91
Zolina*	35	% 0,39
Ilundain	6	% 0,07
Lakidain	5	% 0,05
Gongora	0	% 0
GUZTIRA	8982³	% 100

*herri hauek kontzejuak dira

Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak Aranguren Ibarra Nafarroako eremu ez euskaldunean sailkatzen bazuen ere, 2010eko otsailaren 18an Nafarroako Parlamentuak Euskararen Legea aldatu eta Aranguren **eremu mistoan** sartzea onartu zuen. Lehendik ere, 2006an ibarrari buruz egindako ikerketa Soziolinguistikoak argi islatzen zuen ibarrak eremu mistoarekin ezaugarri asko partekatzen zituela eta herritarren zati handi batek (biztanleen %56,3ak) ibarrak eta bere biztanleek lege trataera ezberdina izan beharko luketela defendatzen zuen (%39,5ak eremuen

² 2010eko ekainaren 4an Nafarroako Aldizkari Ofizialean Mutiloagoiti eta Mutiloabeiti herrien batzea argitaratu zen. Orain herrigune bakar horrek Mutiloa izena du.

³ Biztanleria kopurua 2014ko erroldaren arabera

Euskararen normalizaziorako plangintza Aranguren Ibarra (2015)

desagerpena defendatzen zuen, eta %16,8ak Ibarra eremu mistoan sartzea). Urte berean Nafarroako Gobernuak egindako ikerketa soziolinguistikoaren arabera, Aranguren Ibarreko biztanleen %67,1 ibarra eremu mistoan sartzea nahi zuen. Biztanleen nahi hori zela eta, 2008-2009 ikasturtean D eredia jarri zen martxan lehenengo aldiz Arangurengo eskola publikoan.

Bestalde, eta ibarrean euskararen alde eman diren aurrerapausoekin jarraituta, 2013ko abenduaren 5ean Aranguren Ibarreko udal esparruan **euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza onetsi zen.**

Arangurengo Udalaren barne egiturari dagokionez, zazpi arlotan banatzen da udalaren jardura:

1. Gizarte Ongizatea eta Osasuna
2. Kultura, Hezkuntza eta Euskara
3. Kirola eta Gazteria
4. Industria, Konpontze-lanak eta Enplegua
5. Ingurumena eta Lorezaintza
6. Hirigintza eta Etxebizitza
7. Pertsonala eta babes herritarra

Aranguren Ibarreko Euskara Zerbitzuari dagokionez, Kultura eta Hezkuntza arloekin batera kokatzen dela ikus dezakegu. Euskara zerbitzuari 2007. urtean eman zitzaion jarraitasun eta egonkortasun handiagoa lanaldi osoko teknikari batentzako lanpostua finkatuz. Egun, zerbitzu honek euskara sustatzeko eta normalizatzeko ekimen ugari antolatzen ditu, gehienak, Nafarroako Euskara Zerbitzuen Sarearekin (NUETSeKin) elkarlanean.

Normalkuntza plan bat proposatzeko garaian, biztanleria kopuruaren hazkundera kontuan hartzea ezinbestekoa da baita inmigrazioa kontuan hartzea ere. Esan genezake, Nafarroako Estatistika Institutuko datuen arabera, 2001etik 2014 bitartean, Aranguren Ibarrek bikoiztu egin duela bere biztanle kopurua.


Biztanleen jaioterriari dagozkion datuak emateko, 2014ko errolda hartuko dut kontuan. Horrenbestez, 2014ko erroldaren arabera, udalerrian jaio ez diren pertsonak biztanleriaren % 91,6 dira. Horietatik % 66,4 Nafarroako beste udalerriren batetik etorria da eta Aranguren Ibarreko biztanleen % 8 baino ez da atzerritik etorria.

Adinari heltzen badiogu, 2014ko erroldaren datuen arabera, Aranguren Ibarra Nafarroako udalerrri gazteenetarikoa da. Ibarreko batzbesteko adina 34,7 urtekoa da, Nafarroa osoko batzbestekoa baino

Euskararen normalizaziorako plangintza Aranguren Ibarra (2015)

baxuagoa. Honek lotura zuzena du, hein handi batean, Mutiloan eraiki diren Babes Ofizialeko Etxebizitzekin.

Ondoren, Aranguren Ibarreko biztanleak adinka zehatzago nola sailkatzen diren ikusiko dugu:



**Iturria: NEI 2014ko errolda*

Populazio piramidean ikusten dugunez, erdialdera zabalagoa da gazte-helduek ibarrean duten pisuaren seinale. Bestalde, begi kolpe batez antzematen da adineko oso gutxi dagoela ibarrean.

4. EUSKARAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Aranguren Ibarreko euskararen egoeraren diagnostikoa egiteko, azken euskararen kale neurketaren datuak, 2006an ibarrean egindako ikerketa soziolinguistikoa, 2011ko zentsuko datu soziolinguistikoak eta ibarreko euskararen presentzia edo eskaintza bera erabiliko dira besteak beste. Atal hau bitan dago zatitua, batetik, bertako biztanleen euskararen egoera aztertuko da eta, bestetik, ibarreko zerbitzu eta bestelako eremuetako euskararen egoera.

4.1-IBARREKO BIZTANLEEN EUSKARAREN EGOERA

EZAGUTZA

Aranguren Ibarreko euskararen ezagutza aztertzeko Nafarroako Estatistika Institutuak 2000 urtetik aurrera erabilitako hiztunen sailkapena erabiliko dut. Sailkapen horren arabera honako hiztun mota hauek bereizten dira:

1. **Elebidunak:** euskaraz ongi ulertu eta hitz egiten dutenak. (euskaldun alfabetatu gabeak, euskaldun erdi-alfabetatuak eta euskaldunak*)
2. **Elebidun hartzaileak:** euskaraz ongi ulertzen dutenak baina hitz egiten ez dutenak edo zailtasunez egiten dutenak (ia-euskaldun alfabetatu gabeak, ia-euskaldun alfabetatuak, ia-euskaldunak eta ia-euskaldun hartzaileak*)
3. **Erdaldunak:** euskaraz hitz egiten eta ulertzen ez dutenak edo zailtasun handiz ulertzen dutenak (erdaldunak, ia-euskaldun hartzaileak*)

*2000 urtea baino lehen Nafarroako Estatistika Zerbitzuek erabiltzen zuten sailkapena eta Eustatek, oraindik ere, erabiltzen duena.

Sailkapen hori kontuan hartuta eta 2011ko zentsuko datu soziolinguistikoak begiratzen baditugu, Aranguren Ibarreko biztanleak honela sailkatzen dira:

- Elebidunak: % 9,8
- Elebidun hartzaileak: % 8,3
- Erdaldunak: % 80, 6

**Euskararen normalizaziorako plangintza
Aranguren Ibarra (2015)**

Gehiengoa erdalduna bada ere, 1991 urteko datuekin erkatzen baditugu, ikusiko dugu, elebidunen kopuruak % 4 inguru hazi den bitartean, erdaldun kopuruak 20 urte horietan % 10 egin duela behera. Beraz, pixkanaka bada ere, Aranguren Ibarrek euskara berreskuratzeko prozesuan aurrera darrai.

Ibarreko biztanleek adin-tarteka duten ezagutzari heltzen badiogu, 2011ko zentsuaren arabera, ondoren adierazten den bezala banatzen dira ibarreko biztanleak:

EUSKARA GAITASUNA ADINAREN ARABERA									
2011. URTEA									
(ARANGUREN IBARRA)									
ADIN-TARTEAK	Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldunak		Ez du erantzun		Guztira
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
5-14 urte	202	16,6	115	9,5	880	72,4	19	1,6	1216
15-24 urte	127	12,7	84	8,4	769	77,0	19	1,9	999
25-34 urte	188	16,3	107	9,3	859	74,4	0	0,0	1154
35-44 urte	115	7,8	104	7,1	1239	84,6	7	0,5	1465
45-54 urte	59	4,4	63	4,8	1174	88,5	30	2,3	1326
55-64 urte	30	4,2	87	12,1	588	81,7	15	2,1	720
65 edo gehigo	0	0,0	50	10,2	433	88,4	7	1,4	490
GUZTIRA	721	9,8	610	8,3	5942	80,6	97	1,3	7370

*Iturria: Euskarabidea

Ikus dezakegunez, elebidun gehienak 5 eta 24 urte bitartean aurkitzen dira. Hortaz, ibarreko elebidunen multzorik handiena haurrek eta gazteek osatzen dute. Gainera, 1991tik haur eta gazte elebidunen kopuruak gora egin du nabarmen eta 2001eko datuekin erkatuta ere goranzko joera mantendu da % 2 eta % 4ren artean igoz. Datu hau oso kontuan hartu beharko da plangintza honetako lehentasunak finkatzean eta ekintza zehatzak proposatzean.

Euskararen normalizaziorako plangintza Aranguren Ibarra (2015)

Elebidun hartzaileen adinari dagokionez, portzentaje handiena 55 urtetik gorakoek osatzen dute, horien atzetik 5-14 urteko haurrak eta ondoren 25-34 urteko gazteak daudelarik. Plangintza honek multzo horren ezagutza hobetzeko ekintzak jaso beharko ditu.

TRANSMISIOA

Arangurengo ikerketa soziolinguistikoaren arabera inkestatuen % 17,8k bere burua euskalduntzat zuen eta % 10,8k euskara etxean ikasi zuela zioen. Beraz, ikerketa horren arabera, 2006an bere burua euskalduntzat zuten biztanle gehienek hizkuntza familian jaso zuten.

Ikerketa horren ondorioetan, beste gauza bat ere azpimarratzen da: soilik inkestatuen % 17,6ak familia-inguru elebiduna izan zuela; baina aldiz, inkestatuen seme-alaben % 41,3a euskalduna zen. Transmisioaren gorakada horren arrazoia, ikerketaren arabera, euskararen prestigio sozialaren gorakada izan zen. Izan ere, prestigio izate horrek gurasoak beren seme-alabei euskara transmititzera edota euskara hezkuntzaren bidez ikastera bultzatuko baitzuten.

2011ko euskara gaitasuna biltzen duen taularen arabera, guraso izan daiteken adin tarteari erreparatzen badiogu (35-44 adin tartea normalean), % 7 inguru soilik da elebiduna edo elebidun hartzailea.

Bestalde, etxeko lehen hizkuntzari erreparatzen badiogu, 2011ko datu soziolinguistikoek erakusten digutenez, 1991tik hona euskara eta gaztelania batera etxean erabiltzeari dagokion portzentajea igo egin da eta etxean euskaraz soilik aritzen direnen kopurua bere horretan mantendu da ia-ia.

Ondoren azaltzen den taulan zehatzako aurkezten dira datu horiek:

ETXEAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA (ARANGUREN IBARRA)											
URTEAK	Euskara		Gaztelania		Biak		Beste bat		Ez du erantzun		Guztira
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
1991	25	1,7	1414	94,9	34	2,3	6	0,4	11	0,7	1490
2001	38	1,0	3582	94,8	67	1,8	80	2,1	10	0,3	3777
2011	82	1,1	6799	92,2	258	3,5	99	1,3	134	1,8	7372

*Iturria: Euskarabidea

ERABILERA

Euskal Herriko V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, bi dira euskararen erabilera eragiten duten faktore nagusiak:

- Euskaldunen dentsitatea harreman-sarean, eta
- Euskaraz egiteko erraztasuna

Arangurengo euskararen erabilera diagnostikorako Euskal Herri mailan egiten den Hizkuntzaren Kale Erabilera Neurketako datuak erabiliko ditut, zuzenago, IV. Kale Neurketaren datuak (2011. urtea). Hala egitea erabaki dut, erabilera inguruko datu eguneratuenak dituelako iturri horrek eta bestalde ere erabiltzen duen metodologiari esker (behaketa zuzena) lortzen dituen datuak objektibotasun maila handia dutelako. Egun, Soziolinguistika Klusterrak koordinatzen du kale neurketa hori.

Kale neurketak ematen dituen datuak euskararen erabilera esparru nagusiei dagozkie, hots, familia eta lagunarteko erabilera. Arangurengo ikerketa soziolinguistikoak ere ibarreko euskararen erabilera esparru nagusia familia eta lagunartea zirela adierazten du. Hala ere, kale neurketak ahozko erabilera dagozkion datuak ematen dituela kontuan hartu behar dugu eta Arangurengo ikerketa soziolinguistikoaren arabera, ibarreko euskaldunen euskara erabilera ulermenari eta irakurketari daude nagusiki lotuak.

2011. urteko IV Kale Neurketan Euskal Herri osoko 97 udalerriri neurtu dira eta 154.277 elkarrizketaren nahiz 363.616 hiztunen informazioa bildu da.

Emaitzak adierazgarriak dira eskualde, lurralde eta Euskal Herri mailan ez, ordea, udalerriri mailan.

Hala ere, portzentaje zehatzak baino esanguratsuagoa da urteetan zehar egin diren kale neurketen bidez jasotako datuek erakusten duten joera.

Jarraian, Aranguren Ibarrerako interesgarriak izan daitezken datuak aipatuko dira:

Aipagarria da, Nafarroan euskararen ezagutzaren kopurua igotzen ari den bitartean kale neurketa guztiek erabilera kopuru beretsua eman dutela: 2011. urtean kale erabilera % 5,7koa izan da eta 2001etik geldirik dagoela ikus daiteke, 2001 eta 2006an %6,0koa baitzen. Beraz, ez du aldaketa esanguratsurik pairatu.

Adin taldeei dagokionez, garrantzitsua iruditzen zait aipatzea, Nafarroan euskararen erabilera gazteetan eta helduetan egonkor mantendu bada ere, haurretan behera egin duela.

Bestalde, 2011. urteko neurketan ikusi den daturik azpimarragarriena hauxe litzateke: haurrek hizkuntzaren hautaketan izugarrizko eragina dutela. Haien presentziak euskararen erabilera areagotzen duela, alegia. Datu hau aurreko neurketan ere ondorioztatu zen.

Euskararen normalizaziorako plangintza Aranguren Ibarra (2015)

Etxean hitz egiten den hizkuntzari erreparatzen badiogu, aldiz, Aranguren Ibarreko 2011ko datu soziolinguistikoaren arabera, gaztelania etxean gehien erabiltzen den hizkuntza izaten jarraitzen badu ere, azken hogeitertan euskara eta gaztelania, biak, etxean erabiltzen dituztenen kopurua pittin bat hazi da egun % 3,5era iritsiz.

JARRERAK ETA IRITZIAK

2006ko ibarreko ikerketa soziolinguistikoaren arabera, inkestatutako erdaldunen hiru laurdenek euskara jakin nahiko lukete eta % 31,5 saiatu dira noizbait euskara ikasten.

Euskara ez ikasteko arrazoiengatik galdetuta honakoak dira lortutako erantzunak: "denbora falta" (% 36,7), "interes falta" (% 33,5), "ahalegin handia suposatzen didalako eta zaila delako" (% 16,7), "ikasten ari naiz jada" (% 6,1), "nagusiegia naizelako" (% 4).

Besteekiko harremani dagokienez, erdaldunen % 84,2k ez du uste euskara ez jakitea muga bat denik giza-harremanak edukitzeko garaian. Bestalde, inkestatuen % 74,3k nolabaiteko lotura afektiboa adierazten du euskararekiko.

Orokorrean Nafarroan euskararekiko dagoen jarrerari begiratuta, Euskal Herriko V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, "(...) euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak 16 puntuko igoera izan du hogeitertean. Izan ere, 1991n nafarren % 21,6 zegoen euskara sustatzearen alde, eta % 37,7 dago gaur egun alde".

Horretaz gain, inkesta soziolinguistiko horri jarraiki, euskararekiko jarrerak lotura zuzena du hizkuntza gaitasunarekin. Horrela, euskara gaitasun handiagoa dutenek euskararekiko jarrera baikorragoa erakusten dute euskara gaitasun txikiagoa dutenek baino.

Azkenik, hizpide dugun inkesta soziolinguistikoak Nafarroan euskararen inguruan dauden aurreiritziak aipatzen ditu. Egokia iruditzen zait horietako batzuk lan honetan jasotzea, Aranguren Ibarrean ere aurreiritzi horiek edo antzekoak topa baikenitzake. Inkesta soziolinguistikoaren arabera:

- Nafarroako biztanleen % 68k ez du uste euskara galtzeko arriskuan dagoenik.
- "Hizkuntzaren aberastasunari dagokionez, biztanleen % 43k uste du euskara gaztelania bezain aberatsa dela, eta gutxi dira kontrakoa uste dutenak (% 10)."
- "Gizartean bi hizkuntza egoteak ez du arazorik sortzen Nafarroako biztanleen % 79ren ustez, eta arazo iturri izan daiteke % 17ren ustez."
- Nafarroako biztanleen % 82k uste du haurrak murgiltze programetan sartzea ona dela.

4.2-EUSKARA IBARREKO ESPARRU EZBERDINETAN

EUSKARA UDALEAN

Plangintzaren hasieran adierazi bezala, 2013an Aranguren Ibarreko udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza onetsi zen. Egun, udala ordenantza aplikatzen hasi berri dela esan genezake eta, beraz, ez da guztiz betetzen onetsitako guztia. Hortaz, plangintza honek puntu hori helmuga nagusien artean jarri beharko du.

Udal barneko euskararen ezagutzari dagokionez, 13 zinegotzietatik batek baino ez daki euskaraz eta beste bat ikasten hasi da aurten. Hala ere, herritarren arretarako bulegoan 4 langile daude eta horietatik bik EGA maila dute. Hortaz, herritarrak euskaraz zuzendu daitezke udaletxera doazenean eta hizkuntza horretan arreta jaso dezakete. Lorezaintzan, mantenimenduan eta obretan dauden langileen euskararen ezagutza ez dago ikertua baina gehiengoa erdalduna da.

Euskararen erabilerari helduta, kanpoko erabilerari dagokionez, errotulazio elebiduna erabiltzen du udalak gehienetan eta web orria ere elebitan du. Inprimakiak ordea, batzu-batzuk elebitan baditu ere, gehienak oraindik ere, gazteleraz daude.

Barneko euskararen erabileraren inguruan ez dago ezer ikerturik.

EUSKARA IRAKASKUNTZAN

Aranguren Ibarrean Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiteko aukera badago ere, sare publikoan San Pedro eskolan Lehen Hezkuntza egin daiteke soilik. Hortaz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa edo Lan Heziketa publikoa jasotzeko sare pribatura edo Iruñera jo beharra dago. Derrigorrezkoa ez den eskolatzeari dagokionez, San Pedro eskola publikoan eta Luis Amigó ikastetxe pribatuan jaso daiteke Haur Hezkuntza.

Arangurengo ikerketa soziolinguistikoaren alderdi kualitatiboak argi eta garbi erakusten du hurbiltasuna guraso askorentzako aldagai erabakigarria dela (ikusi 36. eta 37. orrialdeak). Hain da erabakigarria, guraso askok soilik Lehen Hezkuntza duen San Pedro eskola publikora eraman beharrean, Batxilergo mailara arte duen Luis Amigora eramaten dituztela, hain zuzen ere, institutu garaian haurrak ibarrean geldi daitezten.

Orokorrean, 2014-2015 ikasturtean Aranguren Ibarreko haurren %21ek D ereduan ikasi du, batzuk ibarrean bertan eta beste batzuk

Euskararen normalizaziorako plangintza Aranguren Ibarra (2015)

ibarretik kanpo. Ibarrean D eredurik ez zegoenean, %16k ikasten zuen eredu horretan.

Ondoren ikasketa mota edo etapa bakoitzeko datuak eskainiko dira baita bestelako ikasketetako datuak ere (helduen euskalduntzea eta musika eskola):

HAUR ESKOLA

Arangurengo Ttipi-Ttapa Haur Eskolan euskarazko eredia eskaintzen da. Aurreko urteetan euskaraz izena ematen zuen portzentajea % 35 ingurukoa izaten bazen ere, 2015-16 ikasturteari begira espero denaren arabera euskarazko matrikulazioa % 50 ingurukoa izango da. Hortaz, gazteleraz eta euskaraz matrikulatutakoen portzentajea orekatuz doa eta ez dira, jada, gaztelerazkoak gailentzen.

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Nafarroako Hezkuntza sailak 2008-2009 ikasturtean hala nahi zuten gurasoei beren seme-alabak Arangurengo eskola publikoan D ereduan matrikulatzeko aukera eskaini zien lehen aldiz. Aurretik eredu horren aldeko gurasoek udalerritik kanpora bidali behar zituzten seme-alabak eskola publikoak ez baitzuen eredu mota hori eskaintzen.

Bestalde, PAI programa ezarri da Ibarreko eskola publikoan eredu linguistiko guztietan D ereduan izan ezik irakasleek hala erabakita. PAI programa ingelesa ikasteko programa bat da eta astean egiten diren saioetatik batzuk ingelesez irakastean datza. Hortaz, ingelesa irakasgai gisa edukitzeaz gainera, beste saio batzuk ere ingelesez irakastea dakar. A eta G ereduetan asteko 28 saioetatik 10, gutxienez, ingelesez irakatsiko lirateke eta D ereduaren kasuan ingelesez irakatsiko lirateke: 5 saio (Haur Hezkuntzan), 6 saio (Lehen Hezkuntzako lehen zikloan) eta 8 saio (Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan).

Hori kontuan hartuta, egun, San Pedro eskolan Pai A, Pai G eta D ereduak eskaintzen dira. Luis Amigó ikastetxe pribatuan, aldiz, Pai G eredia soilik.

2014-2015 ikasturtean ondorengo taulan adierazten den bezala banatzen dira, eredu bakoitzeko, San Pedro eskola publikoko ikasleak:

**Euskararen normalizaziorako plangintza
Aranguren Ibarra (2015)**

Ikasketa-eredua	Haur kopurua	Portzentajea
D eredia	133	% 30,1
PAI -A eredia	55	% 12,4
PAI -G eredia	22	% 5
A eredia	151	% 34,2
G eredia	81	% 18,3
GUZTIRA	442	% 100

Ikus dezakegunez, haur gehien dituzten ereduak A eta D dira, euskara eskaintzen duten bi ereduak. Beraz, esan dezakegu ibarreko eskola publikoa aukeratzen duten gurasoen artean badagoela seme-alabak euskarazko ereduren batean matrikulatzeko interesa edo motibazioa.

San Pedro eskolako D ereduko matrikulazioetako datuei helduz gero, eredu horrek hamabi hurrekin ireki zituen bere ateak 2008-2009 ikasturtean eta 2015-2016 ikasturteari begira 24 haur matrikulatu dira eredu horretan.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA ETA BATXILERGOA

DBHri eta Batxilergoari dagokienez, Ibarrean ez dago A ez D ereduko eskaintzarik. Hezkuntza maila hau soilik Luis Amigó ikastetxe pribatuan ematen da G ereduan. Hezkuntza maila hau euskaraz jarraitu nahi duten guztiek, oraingoz, Iruñera jo behar dute.

GOI ETA ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Ibarrean ez da goi eta erdi mailako heziketa ziklorik eskaintzen. Hala ere, Arangurengo gazteek, Nafarroako gazte guztiek bezala, ez dute hezkuntza maila hau euskaraz ikasteko aukera bermaturik.

Euskararen normalizaziorako plangintza Aranguren Ibarra (2015)

UNIBERTSITATEA

Nafarroako unibertsitateetara joaten diren Arangurengo gazteek, Haur eta lehen hezkuntzako irakasle graduak kenduta, ez dute hezkuntza maila hau euskaraz ikasteko aukera bermaturik.

BESTELAKO IKASKETAK:

- *Helduen euskalduntzea:*

Helduen euskalduntzeari dagokionez, Mutiloan bertan Burlatako aek-ren bidez kudeatutako eskolak ematen dira. Aurten, 2014-2015 urtean alegia, hasiera mailan 16 ikasle daude eta C1 mailan 13. Bestalde, Mintzakide talde bat ere badago.

- *Lino Otano Musika Eskola:*

Aranguren Ibarreko musika eskolak 3 urtetatik aurrera eskaintzen ditu musika-ikasketak. Haurrentzako 3 maila ezberdin eskaintzen ditu eta 18 urtetatik aurrera helduentzako ikasketak. Egun, elebitan eskaintzen den maila bakarra lehenengoa da, musikaren hastapenei zuzendua. Gainontzeko mailetan ez dago euskarazko eskaintzarik.

EUSKARA KULTURA ETA AISIALDI ESKAINTZAN

Aranguren ibarrean dagoen kultur eskaintzaren barruan, hainbat jarduera euskaraz egiten dira. Esate baterako, haurrentzako noizean behin ipuinkotalariak egiten dira eta Kultur Etxean jartzen diren erakusketa gehienak elebitan egoten dira.

Horretaz gain, Irulegi Euskara Taldea elkarteak euskara zerbitzuarekin elkarlanean euskararen astea antolatzen du maiatza aldera. Aste horretan, haurrentzako jarduerak egoteaz gain, helduentzako euskarazko antzezlanak eta hitzaldiak egoten dira. Horretaz gain, bertso bazkariak, Olentzero, Santa Agedako eguna, San Tomas eguna eta euskaraz aritzeko hainbat tailer antolatzen dira urtean zehar euskara zerbitzutik eta beste elkarte batzuekin elkarlanean.

Garrantzitsua da aipatzea, ibarreko euskarazko jarduera guztiak batzen dituen buletin elebiduna egin eta etxeetara bidaltzen dela, ibarreko bizilagunek euskarazko jardueren eskaintzaren inguruan informazioa lehen eskura izan dezaten. Era berean, Ze berri aldizkaria ere etxeetara igortzen da bizilagunek ibarreko euskara jardueren berri ez ezik, Nafarroa osoko jardueren eta euskararen inguruko kontuen berri izan dezaten.

Euskararen normalizaziorako plangintza Aranguren Ibarra (2015)

Etorkizunari begira, kontuan izan beharko genuke euskarazko kultur arloko zer nolako eskaria dagoen eta horren arabera eskaintza ugaritzen saiatu horrek euskararen garapena bultzatuko bailuke.

Haurren aisialdiari dagokionez hauek dira euskaraz eskaintzen diren jarduerak: igeriketa, pilota, multikirola, dantza, ludoteka, ludotxiki, hiri-kanpaldiak eta udalak diruz laguntzen dituen udalekuak.

Horretaz gain, aipagarria da larunblai eta iseka aisialdi taldeak ere martxan daudela. Talde hauek Euskaldunen Topaguneak eta Atarrabiako Karrikaluze elkarteak sortutako 3blai egitasmoaren barruan kokatzen dira eta aisialdian euskararen erabilera sustatzea dute helburu.

EUSKARA LAN MUNDUAN

Aranguren Ibarrek industrialde garrantzitsua du udal-eremuan baina euskararen egoera ez dago ikertua.

EUSKARA KOMUNIKABIDEETAN

TELEBISTA

Arangurengo 2006ko ikerketa soziolinguistikoaren arabera, euskaldunek gehien ikusten zuten telebista ETB2 zen, eta bigarrena ETB1. Gainontzeko telebistak estatu mailakoak dira eta horrela sailkatzen ziren gehien ikusten zirenetatik gutxien ikusten zirenetara: Tele 5, Antena 3, TVE 1, TVE 2 eta Cuatro TV.

Telebistaren digitalizazioarekin batera Nafarroan ETB ikusteko gobernuburuaren artean egondako arazoak alde batera utzirik, egun, Arangurengo Ibarrean ETB1, 2, 3 eta 4 ikustea posible da. Beraz, ibarreko bizilagunek euskara hutsezko ETB1 eta euskaraz marrazki bizidunak eskaintzen dituen ETB3 telebistak eskuragarri dituzte. Horretaz gain, diru-bilketa kanpaina bati esker Baztan-Bertizarana eta Malerrekako euskara hutsezko Xaloa telebista ere ikus daiteke Iruñerrian otsailaz geroztik. Beraz, egun, euskarazko telebista eskaintza zabalagoa dago 2006an ikerketa soziolinguistikoa egin zenean baino. Euskarazko telebista horiek zenbatek ikusten dituztenen datu zehatzik ez dago ordea.

Atal honetan aipagarria da, Aranguren ibarrak berak bertako telebista bat duela. Bertan emititzen diren erreportai, telesail eta bestelako gehienak gaztelaniaz izaten dira. Elebitan (ahoz eta idatziz) ematen dituzte, ordea, udaleko informazioari dagozkion izenburu, azpi-izenburu edo atal nagusiak.

Euskararen normalizaziorako plangintza Aranguren Ibarra (2015)

IRRATIA

Iruñerriko euskara hutseko irrati bakarrak, Euskalerria Irratiak, lanean jarraitzen du lan nekeza izan badu ere. Nafarroako Gobernuak banatu berri dituen FM frekuentzien lizentzietatik at utzi du berriro irrati hori. 25 urte pasatxo daramatza irrati horrek egoera berdinean, auzietan eta orain ere ez ditu diru-laguntzarik ere jasotzen.

Hala ere, esan bezala, irrati honek martxan jarraitzen du eta gero eta programazio ugariagoa eta entzule kopuru handiagoa ditu. Gainera, web orria ere badu eta online entzuteko aukera ere bai beraz.

Arangurengo 2006ko ikerketa soziolinguistikoaren arabera, orduan gehien entzuten zen euskarazko irrata Euskadi Gaztea zen, euskaldunen %42,1ek entzuten zuen irrati hori, 30 urte baino gutxiagoko inkestaturen %73,1ek. Gehien entzuten zen bigarrena Euskadi Irratia zen, euskaldunen %26,3k entzuten zuen eta hirugarrena Euskalerria irrata, euskaldunen %16,5 irrati horren entzule zen. Aipatzeko da ere, euskaldunen %10,5ek ez zuela euskarazko irratarik entzuten eta %5,3ak gaztelarazko Radio Euskadi entzuten zuela. Entzule horien perfila 46 eta 60 urte bitartekoa zen.

PRENTSA

Arangurengo 2006ko ikerketa soziolinguistikoaren arabera, ibarreko euskaldunek gehien irakurtzen dituzten egunkari eta aldizkariak irakurle kopuruaren arabera sailkaturik hauek dira: Diario de Noticias, Berria, Gara, Diario de Navarra eta Zeberri? aldizkaria.

EUSKARA ZERBITZUETAN ETA MERKATARITZAN

2006ko ikerketa soziolinguistikoak esparru ezberdinetan euskararen ahozko erabilera neurtzen du. Ikerketa horretan, zerbitzuen esparruak, merkataritza harremanak, aisialdia eta erlijioa biltzen ditu. Ikerketako datuen arabera, euskaldunen %13,7ak zerbitzuetan euskara erabiltzen zuen. Esan beharra dago ere, zerbitzuena inkestaturen arabera, administrazioaren atzetik zailtasun gehien zituen esparrua zela, hiztunen %31,5ak topatzen zituen zailtasunak zerbitzuen esparruan.

Hala ere, Aranguren Ibarreko merkataritzako diagnostiko zehatzik ez dago eta, beraz, ezin dugu ondorio argirik atera eta ez dakigu zer nolako bilakaera izan duen halakorik izan badu.

Udaleko bestelako zerbitzuei dagokienez, Udalaren menpekoa den Txalopote Ludotekak zerbitzu euskalduna eskaintzen du ostiraletan 17:15etik 19:15era eta zerbitzu elebiduna asteazken eta ostegunetan ordu berean. Aranetxean, Arangurengo Gazteriaren etxean, jarduera gehienak gaztelaniaz egiten badira ere, lau langiletatik bat euskalduna da eta beste bi ikasketa prozesuan daude.

***Euskararen normalizaziorako plangintza
Aranguren Ibarra (2015)***

Kultur etxeari dagokionez, pertsona bakarra dago euskaraz dakiena eta polikiroldegian ez dago euskaldunik eta jarduera gehienak gaztelaniaz eskaintzen dira.

Bestalde, 2009tik aurrera "Euskara Merkataritzara" proiektua martxan da ibarreko merkatariek hala nahi izanez gero, beraien saltokian euskarari presentzia handiagoa eman diezaioten. Egun 13 saltokik parte hartzen dute proiektu horretan.

Horretaz gain, udaletik eta, zehatzago, euskara zerbitzutik diru-laguntzak eskaintzen dira saltokietako errotulazioa eta ibilgailuak euskaraz ipini nahi dituztenentzako.

Euskararen hutsunerik handiena udal-administrazioeko esparruan somatzen da eta kanpoko kudeaketa duten baina udal eskumeneko zerbitzu batzuetan: musika eskolan, kultur etxean, polikiroldegian eta aranetxean.

Beste esparruetan, euskararen sustapena eta presentzia nolabait artikulatua, martxan dagoela ikus genezake.

5. PLANGINTZAREN HELBURUAK

Plangintza honen hasieran aipatu bezala, 2010eko otsailaren 18an Nafarroako Parlamentuak Euskararen Legea aldatu eta, beste herri batzuekin batera, Aranguren eremu ez euskaldunetik eremu mistora aldatzea onartu zuen. Lehendik ere, 2006an ibarrari buruz egindako ikerketa Soziolinguistikoak argi islatzen zuen ibarrak eremu mistoarekin ezaugarri asko partekatzen zituela.

Ikerketa soziolinguistiko horren arabera esan dezakegu, Aranguren berreskurapen prozesuan dagoela bi faktorerengatik: haur eta gazte euskaldunen portzentajeak gora egin duelako eta elebidun hartzaileen kopuruak ere gora egin duelako. Horretaz gain, ibarraren ezaugarri orokorren atalean adierazten den bezalaxe, 2006an ibarrean egindako ikerketa soziolinguistikoaren arabera, biztanleen %39,5ak eremuen desagerpena defendatzen zuen, eta %16,8ak Ibarra eremu mistoan sartzea. Hortaz, esan genezake biztanleen zati garrantzitsu batek, euskaldun zein erdaldun izan, euskararekiko jarrera positiboa adierazten duela edo hizkuntzarekiko nolabaiteko sentsibilitatea duela.

Plangintza honetako helburu nagusiak ezartzeko 2006ko ikerketa soziolinguistikoan ibarreko bizilagunek adierazitako beharrianak kontuan hartzeaz gain, Ibarreko euskararen diagnostikoa egiterakoan antzemandako beharrak ere kontuan izan dira. Ondorengoak dira euskara plangintza honetako helburu nagusiak:

Ibarrean euskararen ezagutza eta erabilera areagotzea

Euskararekiko jarrera eta iritzi baikorra sustatzea

Helburu nagusi horietara iristeko, ordea, honako helburu zehatz hauek ditu plangintzak:

- Ibarreko haur eta gazteen euskara ezagutza eta erabilera sustatzea
- Udalerriko elebidun hartzaileen ezagutza sendotzea
- Ibarreko erdaldunen euskalduntzea sustatzea
- Ibarreko euskaldunen artean hizkuntza erabiltzeko guneak edo testuinguruak sortzea
- Euskararen hedapen funtzionala bultzatzea
- Onetsi berri den euskararen ordenantza herritarrei ezagutaraztea
- Euskararen ordenantza berria progresiboki aplikatzen hastea

***Euskararen normalizaziorako plangintza
Aranguren Ibarra (2015)***

- Ibarreko erdaldunak euskarara hurbiltzea eta euskararen inguruan sentsibilizatzea
- Euskara Zerbitzuaren eta herritarren zein gizarte eragileen arteko harreman hurbila sustatzea eta horien udal administrazioarekiko harremana bultzatzea

6. SORTU DAITEZKEEN ERRESISTENTZIEN AURREIKUSPENA

Plangintza bat diseinatzeko garaian, plangintza hori edozein dela ere, komeni da sor daitezkeen erresistentziak aurreikustea. Modu horretan, balizko erresistentzia horiek gainditzeko edo apaltzeko neurriak ere aurreikus genitzake, plangintzaren bideragarritasuna handituz.

Plangintza honi dagokionez, bi erresistentzia nagusi sor daitezkeela aurreikus dezaket:

Euskara plangintza honen inplementazioak aldaketak, txikiagoak edo handiagoak, ekarriko dituela kontuan izanik, sor daitezkeen lehenengo balizko erresistentzia aldaketa orokor horrekiko izan daiteke. Aldaketak izakiongan desoreka sortzen duen aldetik, egoera horri kontra egiteko joera izaten baitugu.

Bigarren balizko erresistentzia zehatzagoa izango litzateke eta euskararen ordenantzaren aplikazioarekin dago zuzen-zuzenean loturik. Ordenantza aplikatzen hasteak erresistentziak sortuko dituela argi asko aurreikus daiteke eremu asko ukitzen baititu, horien artean plantila organikoak eduki beharko lukeen hizkuntza gaitasuna.

Balizko bi erresistentzia horiek hein batean apaltzeko, aurrerago proposatuko diren ekintzak aurrera eramatean ikuspegi parte hartzaile bat edukiko da. Ahal den guztietan proposatutako ekintzak jasango dituztenekin adostuz eta eztabaidatuz aurrera eramango dira. Horretaz gain, espreski erresistentziak leuntzera bideratutako ekintza zehatzak proposatuko dira.

7. LEHENTASUNAK ERABAKITZEKO IRIZPIDEAK

Lehentasunak erabakitzeko, batetik, 2006an ibarrean eginiko ikerketa soziolinguistikoan agertutako beharrak eta ibarreko diagnostikoa bera kontuan izango ditut. Bestetik, biztanleriaren ezaugarriei begiratuko diet hiru aldagai kontuan izanik:

- ADINA: Aranguren Ibarreko biztanleak adin-tarteka kopuru aldetik zein pisua duten
- HIZKUNTZA TIPOLOGIA: adin-tarte bakoitzaren hizkuntza tipologia
- JARDUERA-ESPARRUAK: adin-tarte bakoitzari eragiten dieten esparruak definituko ditut plangintzaren jarduera-esparruak finkatzeko

7.1-ADINA

Adinari dagokionez, ibarreko biztanleak adin-aro ezberdinen arabera sailkatuko ditut. Horretarako, estatistika institutuetan erabilitako adin-taldeak oinarritzat hartuko ditut: haurrak (0-14 urte), gazteak (15-24 urte), helduak (25-64 urte) eta adinekoak (65 urtetik gorakoak).

Hori argiturik, honela banatzen dira Aranguren Ibarreko biztanleak adinari dagokionez 2014ko datuen arabera:

- Haurrak: % 22
- Gazteak: % 12
- Helduak: % 59
- Adinekoak: % 7

Gazteen multzoari dagokionez, definitzen zaila den multzoa da. Egun, esango nuke 24 urte baino gorago jar genezakela muga pertsona gazte bat definitzerakoan, 39 urtetaraino behintzat gazte motatako bizitza egiten baitu jendeak orokorrean. Hori kontuan harturik, Aranguren Ibarrean gazteen multzoa % 37 izango litzateke eta % 46 izatera ere iritsiko litzateke muga 44 urtetan jarriko bagenu. Hori horrela, **haur eta gazteen**

multzoek pisu garrantzitsua dute ibarrean, biztanleen erdia baino gehiago izatera iritsiz.

7.2-HIZKUNTZA TIPOLOGIA

Hizkuntza tipologiaz ari garenean, garrantzitsua da gogoratzea hizkuntza bat ikasteko garaian esku hartzen duten faktoreak. Txepetxen ikasketen teoriaren arabera, hizkuntza baten ikasketa prozesuan hiru faktorek eragiten dute nagusiki: motibazioak, ezagutzak eta erabilerak. Hiru faktoreak elkar lotuta daude eta era berean faktore horietako bakoitza naturala (primarioa) edo kulturala izan daiteke.

- **Motibazioa:** hizkuntza bat ikasteko edo mintzatzen jarraitzeko ditugun desioak, arrazoiak edo interesak. Faktore hau prozesu kulturalaren abiapuntua izaten da.
- **Ezagutza:** hizkuntzaren funtzionamendua jakitea. Naturala izan daiteke gramatika jakin beharrik gabe edo kulturala gramatika ikasi eta gero.
- **Erabilera:** hizkuntza horretan jardutea litzateke. Prozesu naturalaren abiapuntua da, haurtzaroan egiten dena.

Horrela bada, bi ibilbide daude hizkuntza bat ikasteko: naturala eta kulturala. Naturala berezko ibilbidea da eta euskararen kasuan hizkuntza normalizatuta dagoen kasuetan ematen da. Egoera hori ematen ez denean, Aranguren Ibarrean kasu, euskara normalizatzeko bidean lagundu egin behar da eta ibilbide kulturala egiten da.

Atal honetan adin-multzo bakoitzaren hizkuntza tipologiari erreparatuko diot. Plangintza jasoko dutenek zein hizkuntza tipologia duten jakitea ezinbestekoa da ekintzak, mezuak eta abar helaraztean ez baitugu berdin jokatu. Ezinbestean, adin-multzo bakoitzak duen hizkuntza tipologiari moldatu egin beharko dugu.

2011ko datu soziolinguistikoak kontuan hartuta hauxe da adin-multzo bakoitzak erakusten duen hizkuntza tipologia: (falta diren portzentajeak datuak jasotzean erantzun ez duen jendeari dagozkio)

Haurrak (5-14 urte)

- Elebidunak: % 16,6
- Elebidun hartzaileak: % 9,5
- Erdaldunak: % 72,4

Gazteak (15-24 urte)

- Elebidunak: %12,7
- Elebidun hartzaileak: % 8,4
- Erdaldunak: % 77

**Euskararen normalizaziorako plangintza
Aranguren Ibarra (2015)**

Helduak (25-64 urte)

- Elebidunak: % 8,4
- Elebidun hartzaileak: % 7,7
- Erdaldunak: % 82,7

Adinekoak (65etik gora)

- Elebidunak: % 0
- Elebidun hartzaileak: %10,2
- Erdaldunak: % 88,4

Normala denez, ibarra berreskuratze prozesuan egonik, **adin-multzo guztietan biztanleen erdia baino gehiago erdalduna da. Erdaldun gehien pilatzen dituzten multzoak adinekoena eta helduena da.**

Hala izanik, ondorengo lehentasunak jarriko nituzke egoera honetan eragiteko:

Haurrak:	D ereduko matrikulazioa sustatu
Gazteak eta helduak:	Euskalduntzea sustatu Euskarara hurbilpena ahalbidetu
Adinekoak:	Euskarara hurbilpena ahalbidetu

Bestalde, **ibarreko elebidun eta elebidun hartzaile gehienak haurrak edo gazteak dira.** Elebidunen kopurua multzo horietan % 15 inguruan gelditzen da eta elebidun hartzaileen kopurua % 10etik behera dago.

Haurrak eta gazteak:	<ol style="list-style-type: none">1. Eskolaz kanpoko euskarazko jardueren eskaintza zabaldu2. Euskaraz aritzeko aukerak sortu eta guneak ahalbidetu3. Hartzaile diren horien euskararen ezagutza areagotu
----------------------	---

Euskararen normalizaziorako plangintza Aranguren Ibarra (2015)

Azkenik, helduen multzoan elebidun hartzailen eta elebidunen kopurua ia beretsua da. Helduen talde hau oso kontuan hartzekoa da, egun guraso izateko adina multzo horretan kokatzen baita.

Helduak:	<ol style="list-style-type: none">1. Transmisio kanpainak bultzatu2. Euskaraz aritzeko guneak ahalbidetu (tabernak, udala, dendak, kirolak...)3. seme-alabek eskolaz kanpo euskararekin harremanetan egoteak zein garrantzitsua den helaraztea
----------	--

7.3-JARDUERA-ESPARRUAK

Hizkuntza bat normalizatzeko bidean, hizkuntza horrek gizarteko ahalik eta funtzio gehienetan erabili ahal izatea lortu behar da. Txepetxek zioenaren harira, hizkuntza batek garapen osoa lortuko badu, funtzio guztiak bildu behar ditu (naturalak eta kulturalak).

Horri jarraiki, eta hedapen funtzionala lortzeko bidean, plangintzaren jarduera-esparruak definitu beharko ditugu. Horretarako, diagnostikoan kontuan izandako esparruak adin-multzo bakoitzean duen eragina ikusiko dugu eta horren arabera, plangintzako lehentasunezko jarduera-esparruak definituko ditugu. Hauexek dira kontuan izango ditugun esparruak:

1. Familia
2. Irakaskuntza
3. Aisialdia eta lagunartea
4. kultura
5. Lan mundua
6. Komunikabideak
7. Zerbitzuak
8. Udal-administrazioa

Lehentasunak erabakitzeko garaian, egindako euskararen diagnostikoa oinarritzat hartzeaz gain, 2006ko ikerketa soziolinguistikoan

**Euskararen normalizaziorako plangintza
Aranguren Ibarra (2015)**

bizilagunengandik jasotako beharrak ere kontuan hartuko dira. Ikerketaren arabera:

- Inkestatuen % 40k zerbitzuen esparruan euskara sustatzea lehentasunezkoa zela uste zuen. Zerbitzu horien barruan irakaskuntza eta merkataritza aipatzen ziren nagusiki.

- % 24,5ak administrazioan euskara sustatzea lehentasuna zela ikusten zuen

- % 10,5ak euskara aisialdian sustatzeko beharra aipatzen zuen

- % 4,5ak komunikabideak aipatzen zituen




- % 2ak euskara lan munduan sustatu beharra zegoela zioen

- % 0,3ak familia eta lagunartea aipatzen zuen

- eta % 21,5ak euskara aurreko esparru guztietan sustatzeko beharra ikusten zuen

**Euskararen normalizaziorako plangintza
Aranguren Ibarra (2015)**

Adina, hizkuntza tipologia eta jarduera-esparruak landu ondoren, ikus dezagun taula batean plangintza honetako ekintza-esparrua. Taulan jarduera-esparruak eta adin-multzoak ageri dira eta adin-multzo bakoitzari eragiten dion esparrua kolore batez margotu da. Kolorerik agertzen ez denean esparru horrek adin-multzo horretan "eraginik ez" duela esan nahi du. Koloreztatutako laukitxoetarako semaforoaren koloreak hartu dira oinarritzat:

-  gorriz lehen mailako lehentasuna
-  laranja bigarren mailako lehentasuna
-  berdez eragina bai baina lehentasunik ez duten esparruak

JARDUERA ESPARRUA	ADIN-TARTEAK			
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Familia	Red	Green	Red	Green
Irakaskuntza	Red	Red	Red	Green
Aisialdia eta Lagunartea	Red	Red	Green	Red
Kultura	Orange	Orange	Orange	Orange
Lan mundua	White	Green	Green	White
Komunikabideak	Green	Green	Orange	Green
Zerbitzuak	Green	Orange	Red	Red
Udal-administrazioa	White	Orange	Red	Orange

Beraz, bost jarduera-esparrutan jarri beharko da lehentasuna familian, irakaskuntzan, aisialdiak/lagunartean, zerbitzuetan eta udal-administrazioan.

Bigarren mailan aldiz, komunikabideak eta kultura ditugu.

Esparru horien arabera dagokion adin-multzora zuzendutako ekintzak proposatuko dira.

8. ESKUALDEKO ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Euskara plangintza honek bi eragile nagusi dituela esan dezakegu: udala bera, baliabide ekonomikoak eta euskara teknikaria dituen, eta ibarreko kolektibo ezberdinak. Azken hauek ibarrean ekimen eta ekintza ezberdinak egiteko nahia duten bertako biztanleez osaturik egonik, ezinbestekoa dute udalarekin elkarlanean aritzea. Euskara normalizatzeko plangintza bat aurrera eraman nahi denean, ezinbestekoa da bertako kolektiboak ezagutzea eta haiei euskararekiko ardura ere transmititzea.

Aranguren Ibarrean bost elkarte mota bereizten dira⁴:

Kultura arloko elkarteak

Irulegi Euskara Taldea

Aranguren Ibarreko musika-banda

Arangurengo Festa Batzordea

Mutiloa Festa Batzordea

Aranguren Ibarreko Konpartsa

Aranguren Ibarreko Korala

Aranguren Ibarreko Gaita-jotzaileak

“Beti Zuekin” musika taldea

“Contrabando” rock taldea

Aranguren Ibarreko Antzerki Tailerra

Kirol arloko elkarteak

Aranguren txirrindularitza elkarte

Aranguren Ibarreko tenis kluba

Mutilbasket kirol taldea

Motokrak motokluba

⁴ Aranguren Ibarreko webgunetik hartutako informazioa

***Euskararen normalizaziorako plangintza
Aranguren Ibarra (2015)***

“Malkaiz” ehiztari elkarte

U.D. Mutilvera kirol elkarte

Hezkuntza arloko elkarteak

San Pedro ikastetxe publikoko gurasoen elkarte

“Haritz-Berri” Ilundain Fundazioa

Gastronomia arloko elkarteak

Belarán elkarte

Mutiloa gastronomia elkarte

Larraskoa elkarte

Torrero elkarte

Gizarte arloko elkarteak

Anatravi - garraiolarien elkarte

Aranguren telebisi3n/arangurengo telebista

Adacen garun lesioen Nafarroako elkarte

AEVA- Aranguren Ibarreko enpresen elkarte

Aranguren Ibarreko “San Pedro” jubilatuen, alargunen eta pentsiodunen elkarte.

“Aldapa” emakumeen elkarte

“Azaroa” bizilagunen elkarte

“Mutilva Alta” bizilagunen elkarte

“Ongi etorri” gazte elkarte

“Otso zuri” gazte elkarte

“Gaztearan” gazteen elkarte

Aipatutako elkarteetatik euskara zerbitzuarekin zuzeneko lotura duena Irulegi euskara taldea da, elkarte horrek euskara eta euskal kultura sustatzea helburu duelako eta dagoeneko elkarlanean hainbat ekimen antolatzen direlako.

Euskararen normalizaziorako plangintza Aranguren Ibarra (2015)

Eragile horretaz gain, euskara zerbitzuak beste guztiei zerbitzua eskaintzeaz gain, ondorengoekin hurbilpena sustatzeak garrantzi berezia duela uste dut, finkatutako helburuak lortze aldera lagungarri izan daitezkelakoan: "Gaztearan", "Otso Zuri" eta "Ongi etorri" gazte elkarteekin, Aranguren telebista/arangurengo telebista elkartearekin eta San Pedro ikastetxeko gurasoen elkartearekin.

8.1-UDALEKO BALIABIDEAK

Esan bezala, ibarreko euskara zerbitzuak NUETSein, Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarearekin, elkarlanean ekimen eta jarduera zenbait aurrera eramaten ditu. Beraz, baliabide hori ibarretik kanpo kokatzen bada ere, ibarrean egiten diren ekimen eta ekintzetan zuzeneko eragina du eta plangintza honek dituen helburuak lortzeko baliabide oso garrantzitsua da.

Baliabide ekonomikoei dagokienez, aurten, 2015ean, Aranguren Ibarreko udalak 72.500 eurotako aurrekontua esleitu dio euskara arloari. Kopuru horretatik 55.000 euro jarduerak aurrera eramateko izaten da eta 17.500 bizilagunei euskararen inguruan diru-laguntzak emateko.

Bestalde, 2010a arte Aranguren Ibarrak beste udalerrri batzuekin batera Nafarroako Gobernuarekin zuen hitzarmen baten bidez diru-laguntza bat jasotzen zuen euskara udal-eremuan normalizatzeko. 2011tik aurrera, ordea, hitzarmen hori ez zen berretsi eta bertan behera gelditu zen. Hortaz, funtsean aipatutako aurrekontua kontuan hartu beharko da ondorengo atalean zehazten diren jarduerak aurrera eramateko.

9. JARDUERA ZEHATZAK

Diagnostikoari eta lehentasunei jarraiki, plangintza honetan udal-administrazioaren esparrua izango da jarduera-esparru nagusia eta esparru horretara bideratutako jarduerak izango dira nagusi atal honetan. Zuzenago, euskararen ordenantza aplikatzearekin lotutako jarduerak proposatuko dira. Lehentasunetan finkatu diren beste esparruetan ere jarduerak proposatuko dira baina egun, udaletik egiten diren jarduera asko kanpoan utziko dira. Horrek ez du esan nahi baliozkotzat hartzen ez direnik baizik eta plangintza honen diagnostikoa ikusita, bestelako lehentasunak ikusi direla, ordenantza aplikatzen hastea kasu.

Jarduera zehatzak proposatzean jarduera-esparru bakoitzeko zein ekintza proposatzen diren zehaztuko da, ekintza zein adin-multzori dagoen zuzendua, zein helburu duen eta zein eragileren esku dagoen. Jarduerak egiteko garaian oso kontuan eduki beharko da euskara zerbitzuak duen aurrekontua, aurreko atalean adierazi den bezalaxe.

Hauexek dira plangintza honetako jarduerak zehatzak:

Familia

HELDUAK:

1. JARDUERA: Transmisio kanpainak (kontu txikiak, euskara bai goxoa, xaldun kortin jolastu nirekin...)

Helburua: Ibarreko haur eta gazteen euskara ezagutza eta erabilera sustatzea

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), tipi-tapa haur eskola

2. JARDUERA: Gurasoak euskalduntzeko kanpainak seme-alabekin euskaraz jolastu ahal izateko

Helburua: Ibarreko erdaldunen euskalduntzea sustatzea eta Udalerriko elebidun hartzaileen ezagutza sendotzea

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), aek, Irulegi euskara elkarteak

***Euskararen normalizaziorako plangintza
Aranguren Ibarra (2015)***

3. JARDUERA: Haurrak euskararen murgiltzeko kanpaina. Gurasoei zuzenduriko bilerak antolatzea D ereduko hurrek eskolaz kanpo egiten dituzten jarduerak euskaraz egitearen garrantziaz ohartarazteko, ibarrean eskolaz kanpoko jardueren eskaintzaren berri emateko...

Helburua: gurasoek eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz egiteko garrantzia ikusiz gero, haurrak euskarazko eskolaz kanpoko jardueretan izen-ematea eta, modu horretan, ibarreko haurren euskara ezagutza eta erabilera handitzea eta euskaraz aritzeko guneak edo testuinguruak ahalbidetzea

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), D ereduko irakasleak

Irakaskuntza

HAURRAK:

1. JARDUERA: Matrikulazio kanpaina. Gurasoei euskarazko eredu berri eman, zalantzak argitu, beldurrak kendu...

Helburua: Ibarreko haur eta gazteen euskara ezagutza eta erabilera sustatzea

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), eskola, dagoeneko euskarazko eredu erabiltzaile diren gurasoak

2. JARDUERA: Musika Eskolako arduradunekin bilera bat egitea eskolatik egiten den eskaintza elebitan izatearen garrantziaz ohartarazteko eta hala izateko aukerak, oztopoak eta beharrak aztertzeko.

Helburua: musika eskolako ikasketa-eskaintza elebitan izatea ibarreko haur eta gazteen euskararen ezagutza eta erabilera handitzen laguntzeko eta euskara erabiltzeko guneak edo testuinguruak ahalbidetzeko

Eragileak: udala (euskara zerbitzua)

GAZTEAK:

1. JARDUERA: euskarazko ereduak dituen bigarren hezkuntzako ikastetxe publiko bat ibarrean edukitzeko aukera sustatzen hastea

Helburua: eskolan lehen hezkuntza egiten duten hurrek ibarrean bertan ikasten jarraitzea lortzea. Gazte euskaldunen sarea indartzea eta gazteen euskara ezagutza sustatzea.

Eragileak: udala, Nafarroako Gobernua

GAZTEAK/HELDUAK/ADINEKOAK:

1. JARDUERA: euskalduntze kanpaina. Euskara ikasteko motibatze-kanpainak.

Euskararen normalizaziorako plangintza Aranguren Ibarra (2015)

Helburua: Ibarreko erdaldunen euskalduntzea sustatzea eta Udalerriko elebidun hartzaileen ezagutza sendotzea

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), aek, Irulegi euskara elkarte

2. JARDUERA: matrikulazioetarako diru-laguntzak

Helburuak: Ibarreko erdaldunen euskalduntzea sustatzea eta Udalerriko elebidun hartzaileen ezagutza sendotzea

Eragileak: udala (euskara zerbitzua)

Aisialdia/lagunartea

HAURRAK:

1. JARDUERA: euskarazko aisialdi-taldeak mantentzea. Larunblai/Iseka aisialdi taldeak.

Helburua: Ibarreko haurren euskara erabilera informala sustatzea

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), Karrikaluze elkarte

2. JARDUERA: kirol eta bestelako jarduerak euskaraz eskaintzea (pilota, musika, multikirola...)

Helburua: Ibarreko haurren euskara erabilera informala sustatzea. Eskolaz kanpoko euskarazko jardueren eskaintza zabaldu.

3. JARDUERA: udako kanpaldiak. Ibarretik antolatzen direnak euskaraz eskaini eta bestelakoak diruz-lagundu.

GAZTEAK:

1. JARDUERA: herriko jaietan euskaraz aritzeko edota euskarara hurbiltzeko motibazio-ekimenak (kartelak, txapak, euskal musika...)

Helburua: ibarreko gazteen euskara erabilera sustatzea eta Ibarreko erdaldunak euskarara hurbiltzea zein euskararen inguruan sentsibilizatzea

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), Aranetxea, Irulegi euskara elkarte, tokian-tokiko jai batzordeak, gazte elkarteak

2. JARDUERA: urtean behin euskarazko aisialdi-jarduera bat eskaintzea (kirola, dantza, musika, antzerkia...)

Helburua: ibarreko gazteen euskara erabilera sustatzea eta euskaldunen artean hizkuntza erabiltzeko guneak edo testuinguruak sortzea

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), aranetxea, Irulegi euskara taldea, gazte elkarteak

GAZTEAK/HELDUAK/ADINEKOAK:

1. JARDUERA: Mintzakide taldeak sustatu.

Helburua: Ibarreko euskaldunen artean hizkuntza erabiltzeko guneak edo testuinguruak sortzea eta elebidun hartzaileen ezagutza sendotzea

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), aek, Irulegi euskara taldea

Kultura

HAURRAK:

1. JARDUERA: euskarazko ikuskizunak eskaintzea (antzerkiak, ipuinkotalariak, magia, pailazoak...)

Helburua: haurren euskara ezagutza eta erabilera sustatzea eta hizkuntza erabiltzeko guneak edo testuinguruak sortzea. Euskarara hurbiltzeko motibazioa piztea.

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), eskola, elkarteak orokorrean

2. JARDUERA: urteko ospakizunak (olentzero, santa ageda, san tomas, iñauteriak...)

Helburua: haurren euskara ezagutza eta erabilera sustatzea eta hizkuntza erabiltzeko guneak edo testuinguruak sortzea. Euskarara hurbiltzeko motibazioa piztea.

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), eskola, Irulegi euskara taldea, Aranetxea eta bestelako elkarteak

GAZTEAK/HELDUAK/ADINEKOAK:

1. JARDUERA: urtean behin euskal kulturarekin lotutako aisialdi-jarduera bat eskaintzea (euskal dantzak, trikitixa, txalaparta...)

Helburua: Ibarreko erdaldunak euskarara hurbiltzea eta euskararen inguruan sentsibilizatzea

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), aranetxea, Irulegi euskara taldea, bestelako elkarteak

2. JARDUERA: urteko ospakizunak (olentzero, santa ageda, san tomas, iñauteriak...)

Euskararen normalizaziorako plangintza Aranguren Ibarra (2015)

Helburua: haurren euskara ezagutza eta erabilera sustatzea eta hizkuntza erabiltzeko guneak edo testuinguruak sortzea. Euskarara hurbiltzeko motibazioa piztea.

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), eskola, Irulegi euskara taldea, Aranetxea eta bestelako elkarteak

Komunikabideak

HAURRAK/GAZTEAK/HELDUAK/ADINEKOAK:

1. JARDUERA: ibarreko telebistan euskararen presentzia areagotzea

Helburua: Euskararen hedapen funtzionala bultzatzea, Ibarreko erdaldunak euskarara hurbiltzea eta euskararen inguruan sentsibilizatzea

Eragileak: udala (euskara zerbitzua), gaztearen elkartea

Zerbitzuak

GAZTEAK/HELDUAK/ADINEKOAK:

1. JARDUERA: Euskara Merkataritzara egitasmoarekin jarraitu. Ibarreko komertzioei egitasmoaren berri eman eta bertako zerbitzuak eskaini (itzulpen zerbitzua, euskara ikasteko diru-laguntzak, errotulazioa euskaratzeko diru-laguntzak...)

Helburua: Euskararen hedapen funtzionala bultzatzea eta hizkuntza erabiltzeko guneak edo testuinguruak sortzea

Eragileak: udala, ibarreko merkatariak

Aipatu bezala, ondoren udal-administrazioiko esparruari helduko diot, jarduera gehien barne-hartzen dituen esparruari alegia. Proposatzen diren jarduera guztien helburua da onetsi den euskararen ordenantza aplikatzen hastea eta ordenantza bera ezagutaraztea, beraz, ekintza eta eragileak baino ez dira zehaztu. Beste jardueretan ez bezala, epea ere zehaztu da jarduera hauetan eta ordenantzaren zein kapituluetan barne hartzen den jarduera.

Bestalde, erresistentziak aurreikusteko atalean adierazi bezala, eta esparru honetako zenbait jarduerak ukitzen dituzten gaiak ikusirik, jarduerak jasango dituztenekin elkarlanean eta koordinazioan aritzeko asmoa aipatzen ez bada ere, asmo hori, zeharka, jarduera guztietan aurreikusten da.

Udal-administrazioa

GAZTEAK/HELDUAK/ADINEKOAK:

"III. kapitulua: herritarren eskubideak"

1. JARDUERA: udaleko telefono bidezko arretan agurra elebitan izatea bermatzea

Eragileak: Udala (euskara teknikaria), arreta-bulegoko langileak

Epea: 2015-2016 urte tartea

2. JARDUERA: udaleko arreta euskaraz jasotzeko aukera bermatzea

Eragileak: udala (euskara teknikaria), arreta-bulegoko langileak

Epea: 2015-2016 urte tartea

"IV. kapitulua: udalaren kanpo irudia"

3. JARDUERA: herritarren eskura dauden udal-inprimakiak elebitan eskaintzea

Eragileak: Udala (euskara teknikaria)

Epea: 2015-2017 bitartean inprimaki kopuruaren erdia elebidundu

2018-2019 bitartean inprimaki kopuruaren beste erdia elebidundu

4. JARDUERA: herritarren etxeetara iristen diren jakinarazpenak elebitan eskaintzea.

Eragileak: udala (euskara teknikaria)

Epea: 2015-2017 bitartean urtero herritar guztiei iristen zaizkien jakinarazpen finakoak elebidundu (ibilgailuen gaineko zerga; interneteko eta polikiroldegiko bazkide kuotak...)

2018-2019 jakinarazpen bereziak edo herritar bakar batzuk momentu zehatzetan jasotzen dituztenak elebidundu (ordainketa atzerapenen adierazpenak...)

"V. kapitulua: Udal langileak eta barne funtzionamendua"

5. JARDUERA: udaleko plantilla organikoa osatzen duten langileekin bilera bat egin eta komunikazio bideak ezarri plantilla organikoan ordenantza aplikatzen hasteko asmoen berri emateko eta prozesua urratsez urrats komunikatzen joateko.

Eragileak: udala (euskara teknikaria, euskara zinegotzia eta korporazio guztia orokorrean)

Epea: 2016 urtean

6. JARDUERA: plantilla organikoko lanpostu guztien funtzioak aztertzean kontuan hartu beharreko irizpideak jasotzen dituen plantilla edo txantilo bat prestatu.

Eragileak: Udala (euskara teknikaria)

Epea: 2015 urtea

7. JARDUERA: udal-langileen lan-talde buruei eskatu haien gidaritzapean dauden postuen funtzioak idatziz jasotzeko egindako plantilla edo txantiloieko irizpideak jarraituta

Eragileak: udala eta lan-taldeetako buruak

Epea: 2016 urtean

8. JARDUERA: lan-taldeetako buruek emandako informazioarekin udal-langileen lanpostu bakoitzaren funtzioak aztertu eta lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza eskakizunaren proposamena prestatu.

Eragileak: udala (euskara teknikaria) eta euskara zinegotzia

Epea: 2017-2019

9. JARDUERA: langileak euskara alorrean prestatzeko garaian, prestakuntza hori esleitzeko lanpostuaren araberrako lehentasunak eta irizpideak finkatzea

Eragileak: Udala (euskara teknikaria, euskara zinegotzia eta korporazio guztia orokorrean)

Epea: 2016-2017 behin behineko irizpideak finkatu

2018-2019 behin betiko irizpideak finkatu

**Euskararen normalizaziorako plangintza
Aranguren Ibarra (2015)**

"VI. kontratazioak"

10. JARDUERA: protokolo bat eratzea besteren bitartez kudeatutako zerbitzu publikoetako lehiaketetan ordenantzaren irizpideak kontuan har daitezzen.

Eragileak: udala (euskara teknikaria eta korporazio guztia)

Epea: 2015-2019 urte tartea

"Azken xedapenak"

11. JARDUERA: Dagoeneko euskaldunen fitxeroan sartuta dauden herritarrei posta elektronikoz euskararen ordenantzaren aplikazioan zertan egin den aurrera edo zertan ari den aurrera egiten jakinarazi.

Eragileak: Udala (euskara teknikaria).

Epea: 2018-2019 urte bitartean

BESTELAKO JARDUERAK:

- Euskara zerbitzuko boletina eta ze berri aldizkaria etxeetara bidaltzen jarraitzea
- Gazte eta helduentzako TELP tailerra antolatzea
- Euskarazko produktuen katalogoa biztanleen eskura jartzea
- Euskararen astea antolatzen jarraitzea Irulegi euskara taldearekin batera
- Korrika beste elkarte batzuekin batera sustatzea eta antolakuntzan parte hartzea orain arte bezala
- Euskararen jai ezberdinei publizitatea egitea eta horietara joateko motibazioa piztea (Sortzen, Oinez, Herri Urrats...)

10. EBALUAZIORAKO TRESNAK

Plangintzaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko, urtez urte proposatutako ekintzen jarraipen-txosten bat egingo da. Txosten horretan besteak beste honako datuak jasoko dira:

- Proposatutako jarduerak aurrera eramán diren. Hala ez bada zergatik.
- Matrikulazio edo izen-emateak dituzten jardueren kasuan horien kopurua zehaztuko da
- Egindako ekintzak nahikoak izan diren ebaluatuko da
- Ezarritako helburuak egingarriak diren ikusiko da eta hala ez bada egingarriagoak diren beste batzuk finkatuko dira
- Egindako ekintzetan parte hartutako jende kopurua begiratuko da
- Antolatutako ekintzetan jendearen inplikazioa, parte hartze aktikoa, parte hartutako kolektibo kopurua... begiratuko da

Euskararen ordenantzaren aplikazioari jarraipena berezia egingo zaio horri eskainitako atal bat osatuz. Bertan, aurreko puntuetaz gain, epeak bete diren ebaluatuko da eta epe horiek egingarriak diren.

Datu bilketa horretan oinarriturik hurrengo urterako ekintzak, helburuak eta jarduteko moduak finkatu, moldatu edo aldatuko dira. Plangintza honen helburu nagusia ordenantza aplikatzea denez, urtero ordenantzaren puntu, zati berriren baten aplikazioa proposatuko da.

11. BIBLIOGRAFIA

- EUSKARABIDEA. Aranguren Ibarreko 2011ko datu soziolinguistikoak. (argitaratu gabe)
- EUSKARABIDEA (2006). *Estudio sociolingüístico en Pamplona y su comarca, año 2006.*
(http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/3-pamplona_y_su_comarca_2006.pdf)
- EUSKO JAURLARITZA (2013). *Euskal Herriko V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011: Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
(http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpena/eu_6092/adjuntos/V.Inkesta.pdf)
- SOTES, Pablo; OROZ, Nekane; VILCHES, Carlos (2006). *Estudio Sociolingüístico del Valle de Aranguren.* Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Aranguren Ibarreko Udala.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2011). *Euskal Herriko hizkuntzen kale-erabileraren VI. Neurketa*
(http://www.soziolinguistika.eus/files/VI_Kale_Neurketa-Emaitzen_txostena.pdf)
- ZALBIDE, Mikel; ERIZE, Xabier. (2014). 1.3. Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista.* Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Euskararen normalizaziorako plangintza Aranguren Ibarra (2015)

LEGEAK, ORDENANTZAK ETA XEDAPENAK:

- 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa
(http://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/RegimenForalSimbolos/LF181986-04.htm)
- 2/2010 FORU LEGEA, otsailaren 23koa, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.1. artikuluko a) eta b) letrak aldatzen dituenak
(https://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2010/30/Anuncio-1/)
- Mutiloagoiti eta Mutiloabeiti batzeari buruzko xedapena
(http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2010/68/Anuncio-30/)
- Ordenantza, Aranguren Ibarreko udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituenak. Behin betiko onespena
(http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2013/234/Anuncio-8/)

BESTELAKO ITURRIAK:

- ARANGUREN IBARREKO UDALAREN WEB ORRIA:
(<http://www.aranguren.es/eu/inicio/>)
- NAFARROAKO ESTADISTIKA INSTITUTUA:
 - Población por sexo y lugar de nacimiento, según municipio de residencia, 1-1-2014.
(<http://www.navarra.es/AppsExt/GN.InstitutoEstadistica.Web/InformacionEstadistica.aspx?R=1&E=7>)
 - Evolución de la población según municipios. Año 1996-2014
(<http://www.navarra.es/AppsExt/GN.InstitutoEstadistica.Web/InformacionEstadistica.aspx?R=1&E=7>)
 - Población por municipio según sexo, edad y nacionalidad, 01/01/2014
(<http://www.navarra.es/AppsExt/GN.InstitutoEstadistica.Web/InformacionEstadistica.aspx?R=1&E=1>)